

HOBETZEKO EBALUATZEA

Izen-abizenak

Ikasgaia

Taldea

HITZ GABEKO LENGOAIA HITZEKO LENGOAIA INTERESA ETA ERAGINKORTASUNA

| | Lortua | Erdizka lortua | Ez lortua |
|------------------------------------|--|--|---|
| 01. Keinuak | Gorputz-jarrera ona du, eta naturalak dira egiten dituen mugimenduak. Bere eta entzuleen arteko elkarrekintza sustatzeko joera duela adierazten duten eta diskurtsoa hobeto ulertzen laguntzen duten keinuak baliatzen ditu. | Egiten dituen mugimenduak ez dira beti naturalak, eta, zenbaitetan, bizkarra ematen die ikus-entzuleei. Bere eta entzuleen arteko elkarrekintza sustatzeko eta diskurtsoa hobeto ulertzen laguntzeko keinu batzuk baino ez ditu erabiltzen. Keinu-tiken bat ere badu, nolabaiteko antsietatea edo segurtasun-gabezia adierazten duena. | Gorputz-jarrera zurrunezia du. Ez du keinurik erabiltzen bere eta entzuleen arteko elkarrekintza sustatzeko eta diskurtsoaren ulergarritasuna errazteko. Egiten dituen mugimenduak ez dira naturalak. Keinu-tik ugari ditu. |
| 02. Begirada | Aurkezpenean zehar entzule guztiakin sortzen du ikusizko harremana, eta entzuleengan sumatzen dituen erreakzioetara egokitzen du bere diskurtsoa. | Batzuetan, galdu egiten du entzuleekiko ikusizko harremana, eta entzule multzo bati baino ez dio begiratzen. Ez du beti diskurtsoa egokitzen entzuleengan sumatzen dituen erreakzioetara. | Ez du ikusizko harremanik sortzen entzuleekin aurkezpenean zehar. Ez du diskurtsoa egokitzen entzuleengan sumatzen dituen erreakzioetara. |
| 03. Bolumena eta doinua | Bolumena eta doinua egokiak dira. Mezua entzule guztiak jasotzen dute, aurkezpen osoan zehar. Doinua ez da monotonoa, aldakorra baizik. | Bolumena, zenbaitetan, egokia da; beste zenbaitetan, aldiz, altuegia edo baxuegia da. Aldi batzuetan baino ez da doinua aldakorra. | Bolumena altuegia edo baxuegia da. Doinua oso monotonoa da, batere aldaketarik gabea. |
| 04. Erritmoa eta ebakera | Erritmoa egokia da, ez azkarregia, ez geldoegia. Erritmoa doitzearren, astiroago joaten da une giltzarrietan, eta hitzak nabarmentzeko eta ideiak banatzeko tarteak uzten ditu. Garbia da soinuen eta silaben ebakera. | Erritmoa, batzuetan, egokia da; beste batzuetan, ostera, azkarregia edo geldoegia da. Zenbaitetan, soinuen ebakera ez da oso garbia; horrek oztopatu egiten du hitzak ulertzea. | Erritmoa azkarregia edo geldoegia da. Soinuen eta silaben ebakera ez da oso zaindua, eta ulergaitz bihurtzen da mezuaren zatirik handiena. |
| 05. Janzkera | Azalpenaren helburura, erregistrora eta testuingurura egokiturik dago janzkera. | Janzkera ez da guztiz egokitzen azalpenaren helburura, erregistrora edo testuingurura. | Janzkera ez da egokitzen, ez azalpenaren helburura, ez erregistrora, ez testuingurura. |
| 06. Ordena eta egitura | Azalpenak ordena eta egitura nabaria ditu: hizlariaren aurkezpena eta ahozko azalpena (sarrera, mamia eta ondorioak). Egoki eta neurritz erabiltzen dira diskurtsoa antolatzeko lokailuak, diskurtsoa antolatu eta osotasunez helaraztea lortzeko. | Azalpena ez da oso ordenatua. Hizlariak ez du aurkezpenik egiten eta diskurtsoan ez dira ondo bereizten hiru atalak (sarrera, mamia eta ondorioak), edo atalotan ez da dagokien informazio guztia ageri. Behin edo behin baino ez dira erabili lokailu egokiak diskurtsoa egituratzeko eta borobiltzeko. | Azalpenak ez du inolako ordena edo egiturarik. Ez da lokailurik erabiltzen, edo modu okerrean edo gehiegikeriaz erabiltzen dira. |

| | Lortua | Erdizka lortua | Ez lortua |
|-----------------------------------|---|---|---|
| 07. Hiztegia | Azalpenaren gaiari, entzuleei eta formaltasun mailari dagokion lexikoa erabiltzen du. | Ez du beti erabiltzen azalpenaren gaiari, entzuleei eta formaltasun mailari dagokion lexikoa. | Ez du erabiltzen, ez azalpenaren gaiari, ez entzuleei, ez formaltasun mailari, ezta helburuari dagokion lexikoa. |
| 08. Sintaxia | Esaldiak behar bezala eraikitzen ditu. Saihestu egiten ditu esaldi luzeegiak, eta ez du, ez makulu-hitzik, ez tik linguistikorik erabiltzen. | Akatsen bat egiten du esaldiak eraikitzean. Batzuetan, ez ditu amaitzen. Zenbait kasutan, esaldi luzeegiak, makulu-hitzak edo tik linguistikoak erabiltzen ditu. | Esaldi desegokiak edo osatu gabeak eraikitzen ditu. Esaldi luzeegiak, makulu-hitzak eta tik linguistikoak erabiltzen ditu, mezua behar bezala ulertzea eragozten dutenak. |
| 09. Argitasuna eta zehaztasuna | Bikain ulertzen da azaltzen duen guztia. Mezua zehatza da, ez du behar-beharrezkoa ez den edukirik. | Batzuetan, nekez ulertzen da azaldutakoa. Behar-beharrezkoa ez den edukiren bat du mezua. | Ez da ulertzen adierazi nahi dena. Mezuak eten gehiegi ditu, edo informazio ez-beharrezkoa edo bistakoa ematen duten egiturak. |
| 10. Informazio-dentsitatea | Kontzeptuak, hitzak edo esaldiak errepikatzen ditu. Galdera erretorikoak egiten ditu, eta adibideak jartzen ditu, diskurtsoa hain trinkoa izan ez dadin eta errazago barneratu dadin. | Diskurtsoa hain trinkoa ez izaten eta errazago barneratzen laguntzen duten baliabide gutxi erabiltzen ditu, hala nola kontzeptuak, hitzak edo esaldiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea eta adibideak jartzea. | Diskurtsoa hain trinkoa ez izaten eta errazago barneratzen laguntzen duten baliabiderik ez du erabiltzen, hala nola kontzeptuak, hitzak edo esaldiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea eta adibideak jartzea. |
| 11. Euskarriak | Dokumentu inprimatuek, diapositibek eta abarrek ez dute forma- edo eduki-akatsik. Estilo-batasuna dute, eta baliagarriak dira aurkezpenera hobeto ulertzeko. | Dokumentu inprimatuek, diapositibek eta abarrek zenbait forma- edo eduki-akats dituzte. Ez dute beti estilo-batasun bat, eta, batzuetan, aurkezpenera behar bezala ulertzea eragozten dute. | Dokumentu inprimatuek, diapositibek eta abarrek forma- eta eduki-akats ugari dituzte. Ez dute estilo-batasunik, eta eragotzi egiten dute aurkezpenera behar bezala ulertzea. |
| 12. Ondorioak | Aurkezpenak badu ondorioen atala, sarreran proposatutako hipotesiari, galderei edo helburuei erantzuten diena. | Aurkezpenak badu ondorioen atala, baina erdizka erantzuten die sarreran proposatutako hipotesiari, galderei edo helburuei. | Aurkezpenak ez du ondorioen atalik. |
| 13. Gaia menderatzea | Zehaztasunez eta jakinduriarekin erantzuten die aurkezpenera sortzen diren galderei eta azalpena amaitutakoan entzuleek egindakoei. | Ez die beti zehaztasunez edo jakinduriarekin erantzuten die aurkezpenera sortzen diren galderei edo azalpena amaitutakoan entzuleek egindakoei. | Batere zehaztasunik edo jakinduriarik gabe erantzuten die aurkezpenera sortzen diren galderei edo azalpena amaitutakoan entzuleek egindakoei. |
| 14. Arreta eta interesa | Arreta bereganatzen du, entzuleak inplikatzeko, entzuleen erreakzioei antzematen die, eta haien interesen arabera egokitzen du diskurtsoa. | Batzuetan arreta bereganatzen du, entzuleak inplikatzeko, entzuleen erreakzioei antzematen die, eta haien interesen arabera egokitzen du diskurtsoa. | Ez du arretarik bereganatzen, ez ditu entzuleak inplikatzeko, ez die entzuleen erreakzioei antzematen, eta ez du haien interesen arabera diskurtsoa egokitzen. |
| 15. Iraupena | Aurrez finkatutako iraupena izan du aurkezpenak. | Aurkezpenera luzeagoa izan da, edo soberan izan du denbora, baina ez gehiegi. | Arinegi amaitu du, edo aurrez finkatutako iraupena baino askoz luzeagoa izan da. |

